

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO
ADMINISTRAZIOA

2

ADMINISTRACIÓN DEL TERRITORIO
HISTÓRICO DE GIPUZKOA

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

KULTURA, TURISMO, GAZTERIA
ETA KIROL DEPARTAMENTUA

0210/124/2019 Foru Agindua, otsailaren 13koa, 2019. ekitaldiko deialdia onartzen duena, Gipuzkoako museo guneei laguntzak emateko.

2016ko martxoaren 8ko Diputatuen Kontseiluko akordioaren bitartez, Ondare Historiko-artistikoaren, Artxiboen eta Museoen Zerbitzuaren bitartez Kultura Zuzendaritza Nagusiak kudeatzen dituen programen kontura emango diren dirulaguntzen oinarri arautzaileak onartu ziren (2016ko martxoaren 17ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA -52 zk.-).

Oinarri horiek Gipuzkoako museo guneei laguntzak emateko dirulaguntza lerroa jasotzen dute.

3. oinarri orokorrak jasotzen du dirulaguntzak emateko prozedura ofizioz hasiko dela, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratutako urteko deialdiaren bitartez.

Aipatutako dirulaguntza lerroa jasota dago Diputatuen Kontseiluak 2017ko uztailaren 26ko bileran onartutako 2017-2019 Dirulaguntzen Plan Estrategikoan.

Bidezko da, beraz, 2019ko ekitaldi honetako deialdia egitea.

Horregatik guztiagatik, Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentuko foru diputatu honek,

ERABAKI DU

Lehenengo. Bidaltzea Kudeaketa Estrategiako Zuzendaritza Nagusira Gipuzkoako museo guneei laguntzak emateko dirulaguntza lerroaren eguneraketa, Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2017-2019ko Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren eguneraketan sartzeko.

Bigarren. 2019. ekitaldiko dirulaguntzen deialdia egitea, Gipuzkoako museo gunetarako zuzendutako dirulaguntzak emateko.

Deialdi hori Foru Agindu honen eranskin gisa jaso da.

Hirugarren. Deialdi horri aurre egiteko 264.500 euroko gastua baimentzea, aurrekontuko egozpen hauen kargura:

Aurrekontu saila	Zenbatekoak (€)
1.0210.110.461.01.01.2019	71.100,00
5.0210.110.461.01.01.2020	47.400,00
1.0210.110.470.00.01.2019	24.000,00
5.0210.110.470.00.01.2020	16.000,00
1.0210.110.480.01.01.2019	3.600,00
5.0210.110.480.01.01.2020	2.400,00
1.0210.110.481.00.01.2019	60.000,00
5.0210.110.481.00.01.2020	40.000,00

DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

DEPARTAMENTO DE CULTURA, TURISMO,
JUVENTUD Y DEPORTES

Orden Foral 0210/124/2019, de 13 de febrero, por la que se aprueba la convocatoria correspondiente a 2019 para la concesión de ayudas a centros museísticos de Gipuzkoa.

Por Acuerdo de Consejo de Gobierno de 8 marzo de 2016, se aprobaron las bases reguladoras de la concesión de subvenciones con cargo a programas gestionados por el Servicio de Patrimonio Histórico-Artístico, Archivos y Museos de la Dirección General de Cultura (BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 52 de 17 de marzo de 2016)

Estas bases recogen la línea de subvenciones para la concesión de ayudas a centros museísticos de Gipuzkoa.

La base general 3 establece que el procedimiento para la concesión de subvenciones se iniciará de oficio mediante la convocatoria anual que será publicada en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

Dicha línea de subvenciones se encuentra incluida en el Plan Estratégico de Subvenciones 2017-2019 (PES) aprobado por el Consejo de Gobierno Foral en sesión de 26 de julio de 2017.

Procede, en consecuencia, realizar la convocatoria para el presente ejercicio 2019.

Considerando lo expuesto, este Diputado Foral del Departamento de Cultura, Turismo, Juventud y Deportes

RESUELVE

Primero. Trasladar a la Dirección General de Estrategia de Gestión la actualización de la línea de subvenciones para la concesión de ayudas a centros museísticos de Gipuzkoa para que se incorpore a la actualización del Plan estratégico de subvenciones de la Diputación Foral de Gipuzkoa 2017-2019.

Segundo. Efectuar la convocatoria correspondiente al ejercicio 2019 para la concesión de ayudas a centros museísticos de Gipuzkoa.

Dicha convocatoria se adjunta como anexo a la presente Orden Foral.

Tercero. Autorizar un gasto de 264.500 euros con cargo a la siguiente imputación presupuestaria:

Partida presupuestaria	Importes (€)
1.0210.110.461.01.01.2019	71.100,00
5.0210.110.461.01.01.2020	47.400,00
1.0210.110.470.00.01.2019	24.000,00
5.0210.110.470.00.01.2020	16.000,00
1.0210.110.480.01.01.2019	3.600,00
5.0210.110.480.01.01.2020	2.400,00
1.0210.110.481.00.01.2019	60.000,00
5.0210.110.481.00.01.2020	40.000,00

Foru Agindu hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Hortaz, erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu ahal izango dute interesatuek, Donostiako Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegietan, argitalpenaren biharamunetik hasita bi hilabeteko epean. Bide hori erabili aurretik, berraztertze errekurtsioa aurkez diezaioke partikularrek Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Foru Diputatuari, aipatutako egunetik hasita hilabeteko epean. Dena dela, egokitzen hartutako beste edozein aurkez daiteke.

Donostia, 2019ko otsailaren 13a.—Ana Urkola Aranburu, idazkari teknikoa. (1024)

Gipuzkoako museo gunetara zuzentzen diren dirulaguntzen 2019ko deialdia.

Lehena. Oinarri arautzaileak.

Gipuzkoan museo gunetara zuzentzen diren dirulaguntzak ematea arautzen duten oinarriak, 2016ko martxoaren 8ko Diputatuen kontseiluko akordio bitartez onartutakoak eta 2016ko martxoaren 17ko 52 zk. duen Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratutakoak dira.

Bigarrena. Eskatzaileak, diruz lagungarri diren jarduerak eta baldintzak.

Museo guneen titularrak diren pertsonak nahiz erakunde publiko eta pribatuak eska ditzakete dirulaguntza hauek.

2.1. Dirulaguntza hauen bidez, museo eginkizunak kudeatzeko urteko programa garatzeak dakartzkien gastuak konpentsatuko zaizkie Gipuzkoako Lurralde Historikoko museoetara erakusketa iraunkorrei. Urteko programaren kudeaketaren barruan sartzen da bertako eta kanpoko historiari eta kulturari buruzko bildumak, osagaiak eta alderdi informatzaileak zaindu, erakutsi, ikertu, zabaldu eta dinamizatzea.

2.2. Ondorengo dirulaguntza lerro hauek ezarri dira:

- a) Funtsen dokumentazioa: Euskarri informatikoan inbentariatu eta katalogatzea. Bildumak zaintzea eta zaharberritzea.
- b) Erakusketa iraunkorrak berritu, handitu eta hobetzea.
- c) Hedapena: Aldi baterako erakusketak, programa didaktikoak, jardunaldiak, argitalpenak, web orriak, etab. sortu eta lantzea.
- d) Ikerketa: erakusketa, argitalpen eta beste euskarrien bidez hedatzekoak diren edukien ekoizpenarekin zuzenean zerikusia duten ikerketak.

2.3. Dirulaguntzaren eskaera egiten duten museo guneek ondorengo baldintzak bete behar dituzte:

- A) Museoek eta ondare intereseko multzoek:
 - Bilduma aski hornitua eta kalitatezkoa edukitzea, edo, bestela, interes historiko, artistiko, etnografiko, arkeologiko edo naturalaren ikuspuntutik ondare balioko osagai edo higiezinak edukitzea.
 - Museoaren eginkizun eta helburuak betetzeko behar bezainbesteko instalazio egoki edukitzea.
 - Pertsonal kalifikatua eta nahikoa edukitzea.
 - Funtsak edo, bere kasuan, osagaiak eta higiezina zaintze programak edukitzea.
 - Aldizka berritzen direla, zabalkunde plangintza eta kultur jardueren urteko programa edukitzea. Ondare multzoen kasuan, zabalkunde plangintzan garrantzi handia eman behar zaio antzinako teknologia eta erabilerak heziketa asmotan berreskuratzeari.
 - Bildumak egoki zaindu eta seguru gordetzeko behar diren sistemak eta instalazioak edukitzea.

La presente Orden foral es definitiva y pone fin a la vía administrativa, pudiendo las personas interesadas interponer contra la misma recurso contencioso-administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses desde el día siguiente al de su publicación. Con carácter previo a la utilización de dicha vía los particulares podrán interponer recurso de reposición ante el Diputado Foral de Cultura, Turismo, Juventud y Deportes en el plazo de un mes desde la fecha antes citada, todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro que se estime oportuno.

San Sebastián, a 13 de febrero de 2019.—La secretaria técnica, Ana Urkola Aranburu. (1024)

Convocatoria 2019 para la concesión de subvenciones destinadas a centros museísticos de Gipuzkoa.

Primero. Bases reguladoras.

Las bases reguladoras para la concesión de subvenciones destinadas a centros museísticos de Gipuzkoa son las aprobadas por Acuerdo de Consejo de Gobierno de fecha 8 de marzo de 2016 y publicadas en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 52 de 17 de marzo de 2016.

Segundo. Solicitantes, actividades subvencionables y requisitos.

Podrán solicitar las presentes subvenciones las personas o entidades públicas o privadas que sean titulares de los centros museísticos.

2.1. Las ayudas que se establecen están destinadas a compensar los gastos derivados del desarrollo del programa anual de gestión de las funciones museísticas de los museos y exposiciones permanentes radicadas en el Territorio Histórico de Gipuzkoa: la conservación, exhibición, investigación, difusión y dinamización de las colecciones, elementos y aspectos informadores de la historia y la cultura local y general.

2.2. Se establecen las siguientes líneas subvencionables:

- a) Documentación de fondos: Inventario y catalogación en soporte informático. Conservación y restauración de colecciones.
- b) Renovación, ampliación y mejora de exposiciones permanentes.
- c) Difusión: Exposiciones temporales, programas didácticos, jornadas, publicaciones, creación y desarrollo de páginas web, etc.
- d) Investigación: los estudios directamente relacionados con la producción de contenidos para su difusión a través de exposiciones, publicaciones, etc.

2.3. Los centros museísticos solicitantes deberán cumplir los siguientes requisitos:

- A) Museos y conjuntos de interés patrimonial:
 - Existencia de una colección suficiente y de calidad o, en su caso, existencia de elementos o inmuebles de valor patrimonial, dado éste por su interés histórico, artístico, etnográfico, arqueológico o natural.
 - Existencia de instalaciones suficientes y adecuadas para cumplir con las funciones y objetivos del museo.
 - Personal cualificado y suficiente.
 - Programa de conservación de fondos, elementos e inmuebles en su caso.
 - Existencia de un plan de difusión y de un programa anual de actividades culturales que se renueva periódicamente. En el caso de los conjuntos patrimoniales, en este plan de difusión, la recuperación de tecnologías y usos antiguos con finalidad didáctica debe tener un peso importante.
 - Existencia de los sistemas e instalaciones necesarias para garantizar la correcta conservación y la seguridad de las colecciones.

– Ordu-tegi finkatua jarritz, ikusleei sarbidea ziurtatzea. Gu-txienezko irekitze egunak: Asteko 4 egun.

– Ikertzaileei sarbidea ziurtatzea.

– Funtsen inbentarioa edukitzea.

– Funtsak erregistratuta, inbentariatuta, katalogatuta eta si-gletan jarrita edukitzea.

– Izendatutako urteko aurrekontua behar bezainbestekoa izatea eginkizun guztiak betetzeko.

B) Erakusketa iraunkorrek:

– Bilduma aski hornitua eta kalitatezkoa edukitzea eta, agerpen gidoi bati jarraituz eta erakusketako museoetako irizpi-deak kontuan hartuz, jendeari erakustea.

– Ordu-tegi finkatua jarritz edo beste sistemaren bat erabiliz, ikusleei sarbidea ziurtatzea.

– Ikertzaileei sarbidea ziurtatzea.

– Bildumen erregistroa gutxienez edukitzea.

– Bildumak egoki zaindu eta seguru gordetzeko behar diren sistemak eta instalazioak edukitzea.

2.4. Dirulaguntza jasotzeko aurkeztu den programa ekono-mia aldetik aurrera eramateko modukoa izango da, eta bide-ragarritasun hori diru sarrera eta gastuen aurrekontu orekatua-ren bitartez frogatu beharko da, Gipuzkoako Foru Aldundiari es-katzen zaion dirulaguntza kontuan hartuta.

Hirugarrena. Eskaerak aurkezteko epea eta tokia.

Dirulaguntza horien eskaerak aurkezteko epea 30 egun na-turalekoa izango da, deialdi hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunetik hasita. Epea bukatzen den eguna larunbata, igandea edo jaieguna bada, hurrengo egun balioduna hartuko da azkeneko eguntzat.

Eskaerak, Kultura Zuzendaritza Nagusiak emandako ere-duaren arabera, eta ezarritako dokumentazioarekin batera, In-ternet bidez aurkeztu beharko da, Gipuzkoako Foru Aldundiko egoitza elektronikoa (<https://egoitza.gipuzkoa.eus> helbidean) barrena, dirulaguntzen atarian sartu eta ondorio hauetarako bertan eskuragarri jarri den berariazko inprimakia erabiliz. Es-kaerak eta dokumentazio osagarria Internetez aurkezterakoan foru dekretu hau bete behar da: Foru Administrazioaren ere-muan bitarteko elektronikoen erabilera arautzeko 2010eko irai-laren 28ko 23/2010 Foru Dekretua eta 2011ko abenduaren 30eko 03-131/2011 Foru Aginduak ezarritakoari jarraituz.

Eskatzaileak ez badu sinadura elektronikorik, pasahitzik edo elektronikoki eskaera aurkezteko baliagarri den nortasuna egiaztatzeko beste edozein bitartekorik, aplikazio informatikoa-ren bidez betetako eskaera orria aurkeztu beharko du pape-rean, ordezkariak sinatuta. Nortasuna horrela egiaztatuz gero, aurkeztutako egun baliozkotzat aplikazio informatikoa erregis-tratutakoa joko da.

Laugarrena. Dokumentazioa.

Dirulaguntzaren eskaerarekin batera aurkeztu beharreko dokumentuak dira, oro har, 3.3 oinarri orokorrean xedatutakoak eta ondoren aipatzen direnak:

Memoria bat ondorengo puntuak xehetasun osoz jasotzen dituela:

a) Museo gunearen proiektu orokorra, gastuen eta sarre-ren aurrekontuak barne direla.

b) Urtean zehar egingo diren ekintza zehatzak eta ekintza bakoitzak duen aurrekontuaren agerpen xehatua. Dokumentu hori idazterakoan, atal hauek bereizi behar dira:

b.1. Zentroak lantzen dituen gai-i buruzko ikerketa pro-grama.

– Garantía de accesibilidad para el público visitante con un horario establecido. Apertura mínima: 4 días por semana.

– Garantía de acceso para investigadores.

– Existencia de un inventario de fondos.

– Fondos registrados, inventariados, catalogados y sigla-dos.

– El presupuesto anual consignado es suficiente y apro-piado para el desarrollo de todas las funciones.

B) Exposiciones permanentes:

– Existencia de una colección suficiente y de calidad, ex-puesta al público siguiendo un guión expositivo y utilizando cri-terios museológicos.

– Garantía de accesibilidad para el público visitante con un horario regular o un sistema que asegure dicha accesibilidad.

– Garantía de acceso para investigadores.

– Existencia, como mínimo, de un registro de las colecciones.

– Existencia de los sistemas e instalaciones necesarias para garantizar la correcta conservación y la seguridad de las colecciones.

2.4. El programa presentado, objeto de la subvención, de-berá ser viable económicamente, acreditando dicha viabilidad por medio de un presupuesto de gastos e ingresos equilibrado, teniendo en cuenta la subvención solicitada a la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Tercero. Plazo y lugar de presentación de solicitudes.

El plazo de presentación de solicitudes de estas ayudas será de 30 días naturales a contar desde el día siguiente al de la publicación de esta convocatoria en el BOLETÍN OFICIAL de Gi-puzkoa. Si la finalización del plazo recayera en sábado, domingo o inhábil se trasladará al día hábil inmediatamente siguiente.

Las solicitudes, según modelo que facilite la Dirección Ge-neral de Cultura, junto con el resto de documentación que deba acompañarlas, se presentarán, vía Internet a través de la sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa (<https://egoitza.gipuzkoa.eus>), accediendo al portal de subvenciones y utili-zando el formulario específico disponible a estos efectos. Esta presentación de las solicitudes y de la documentación comple-mentaria vía Internet se realizará en los términos previstos en el Decreto Foral 23/2010, de 28 de septiembre y la Orden Foral 03-131/2011, de 30 de diciembre, por los que se regula la uti-lización de medios electrónicos en el ámbito de la Administra-ción Foral.

En caso de carecer de firma electrónica, clave operativa o de algún otro medio de acreditación de la identidad válido para la presentación electrónica, la entidad que efectúe su solicitud a través de la aplicación informática deberá presentar firmado por quien ostente su representación el impreso en papel de la solicitud. Acreditada la identidad de este modo, se tomará como fecha válida de presentación la registrada en la aplicación infor-mática.

Cuarto. Documentación.

La documentación que deberá acompañarse a la solicitud de subvención será además de la que se indica en la base ge-neral 3.3. la que se a continuación se indica:

Una memoria que recoja de forma detallada:

a) El proyecto general del centro, incluido el presupuesto de gastos e ingresos.

b) Las acciones concretas que se han previsto realizar a lo largo del año y el presupuesto desglosado de cada una de ellas, distinguiendo los siguientes apartados:

b.1. Programa de investigación sobre los temas de los que trata el centro.

b.2. Edukiak hedatu eta museoa bera nahiz museoko jarduerak sustatzeko programa: erakusketak, argitalpenak, jarduera pedagogikoa, heziketa jarduera, etab. Edukiak ekoiztu eta agerian jartzeko informazioko teknologiak erabiltzea (web orriak).

b.3. Bildumekin zerikusirik duten jarduerak:

– Funtsen dokumentazioa: inbentariatu, katalogatu eta dokumentatzea.

– Prebentzio-artapeneko eta piezak zaharberritzeko programa.

b.4. Erakusketa iraunkorra hobetzeko eta/edo berritzeko ekintzak.

c) Beste informazio interesgarriak: jendearentzako ordutegia 2019an, sarreren prezioa eta beherapenen sistema.

Museo zentro bakoitzak eskaera bakar bat aurkeztuko du. Urtean zehar egiteko programatutako jarduerak sartuko dira bertan, lehenago adierazitako lau lerro desberdinei dagozkienak eta lerro bakoitzerako ipinitako aurrekontuak adieraziz, aurrekontu orokorraz gain.

Bosgarrena. Laguntzen gehieneko zenbatekoa.

5.1. Funtz galdurako dirulaguntza horien bidez, jarduera subentzionagarriak duen aurrekontuaren % 50 estaliko da gehienez ere. Zentroka, berriz, gehienezko dirulaguntza ondorengo hau izango da:

– Museo eta ondare intereseko multzoen kasuan: 50.000 €.

– Erakusketa iraunkorren kasuan: 25.000 €.

5.2. Gipuzkoako Museoen Antolamendu Planak proposatzen duen ikuspegi berritik, interes berezikotzat joko dira zentroen arteko lankidetzak bultzatzen duten proposamenak. Lankidetzak hori sustatzearren, lurraldeko museo edo museo zentro batek baino gehiagok gauzatzeko diseinatutako jarduera proposamenak izaera berezikotzat joko dira eta bere kostu osoaren % 75 arteko dirulaguntza jaso ahal izango dute. Zentroen arteko lankidetzak horren ardatz izango dira zabalkundeko eta ikerketako jarduerak, eta irizpide geografikoen, tematikoen edo bestelakoen arabera ezarri ahal izango da. Proposamenetan argi eta garbi azaldu beharko da alderdi bakoitzak proiektuari eskainitako dedikazioa, eta alderdi ekonomikoetan nahiz bestelakoetan egindako ekarpena zehaztu beharko da.

Eskaerak batera nahiz bereizita aurkeztu ahal izango dira. Bi kasuetan, parte hartzen duten zentroentzako funts galduko dirulaguntzen gehieneko zenbatekoa 25.000 eurotik 30.000 eurora igoko da «erakusketa iraunkor» gisa sailkatutako zentroen kasuan, eta 50.000 eurokoa izaten jarraituko du «museoak eta ondare intereseko multzoak» gisa sailkatutakoentzat.

5.3. Halaber, 3.2 oinarriaren arabera diruz lagundu daitezkeen lerro eta zentro bakoitzeko ezartzen diren gehieneko absolutuak ondorengoak dira (5.2 oinarriaren aipatutako baterako proiektuen kasuan izan ezik, horietan gehieneko absolutu horiek gainditu ahal izango baitira):

a) Funtsen dokumentazioa: 12.000 €.

b) Erakusketa iraunkorrak berritu, handitu eta hobetzea: 24.000 €.

c) Hedapena: 24.000 €.

d) Ikerketa: 12.000 €.

Aurkeztutako proiektuan agertzen diren jarduera guztiengatik izan gabe ere, bakar batzuegatik eman daiteke dirulaguntza.

Proiektuak aurkeztutako aurrekontuaren gaineko ehunekoan subentzionatuko dira. Aurkeztutako aurrekontua oso-oso-rik gauzatu beharko da dirulaguntza kobratu ahal izateko, berdin dio zein den subentzionatutako portzentajea. Aurrekontuan

b.2. Programa de difusión de contenidos y de promoción del propio museo y sus actividades: exposiciones, publicaciones, actividad pedagógica y educativa, etc. Aplicación de las tecnologías de la información a la producción y puesta en valor de contenidos (páginas web).

b.3. Actividades relacionadas con las colecciones:

– Documentación de los fondos: labores de inventario, catalogación y documentación.

– Programa de conservación preventiva y de restauración de piezas.

b.4. Acciones de mejora y/o renovación de la exposición permanente.

c) Otra información de interés: horarios de apertura para el ejercicio 2019, precio de la entrada y sistema de reducciones.

Cada centro museístico presentará una única solicitud. En ella se incluirán las actividades programadas para el año y correspondientes a cada una de las cuatro líneas descritas con los correspondientes presupuestos económicos por línea subvencionable, además del presupuesto general.

Quinto. Límites máximos de las ayudas.

5.1. El límite máximo de las mencionadas subvenciones a fondo perdido será el 50 % del presupuesto correspondiente a la actividad o actividades culturales que sean objeto de subvención, hasta un máximo por centro de:

– Museo y conjuntos de interés patrimonial: 50.000 €.

– Exposición permanente: 25.000 €.

5.2. Desde la nueva perspectiva que plantea el Plan de Ordenación de Museos de Gipuzkoa, se considerarán de especial interés las propuestas que potencien la colaboración entre centros. A fin de fomentar esta cooperación, aquellas propuestas de actividad diseñadas para ser desarrolladas por más de un museo o centro museístico del territorio tendrán una consideración especial y podrán ser subvencionadas hasta un 75 % de su costo total. Esta colaboración entre centros se centrará principalmente en acciones de difusión y de investigación y podrá establecerse a partir de criterios geográficos, temáticos o de otro tipo. Las propuestas deberán explicar de forma clara la dedicación de cada una de las partes al proyecto, especificando su contribución tanto en términos económicos como de otro tipo.

La presentación de solicitudes podrá hacerse de forma conjunta o por separado. En ambos casos, el límite máximo de las subvenciones a fondo perdido para los centros que participen se elevará de 25.000 € a 30.000 € en el caso de «exposiciones permanentes» y seguirá siendo de 50.000 € para los clasificados como «museos y conjuntos de interés patrimonial».

5.3. A su vez, los máximos absolutos que se establecen para cada línea subvencionable (según la base 3.2) y centro son los siguientes (excepto en el caso de los proyectos conjuntos citados en la base 5.2., en los que se podrán superar estos máximos absolutos):

a) Documentación de fondos: 12.000 €.

b) Renovación, ampliación y mejora de exposiciones permanentes: 24.000 €.

c) Difusión: 24.000 €.

d) Investigación: 12.000 €.

Las subvenciones podrán ser concedidas para la realización de solamente algunas de las actividades determinadas dentro del proyecto presentado.

Los proyectos se subvencionarán en un porcentaje del presupuesto presentado. El presupuesto presentado deberá ser ejecutado siempre en su totalidad para poder acceder al cobro de la subvención, sea cual sea el porcentaje subvencionado. En

azaldutako kopurutik behera justifikatuz gero, dirulaguntzaren portzentajeari eutsiko zaio, eta proportzionalki gutxitu egingo da emandako kopurua.

Seigarrena. Dirulaguntza ordaintzea.

Oro har, dirulaguntzak ordainduko dira diruz lagundutako jarduera amaitu eta hori behar bezala zuritu ostean, 7. bera-riazko oinarrian ezarritakoari jarraikiz zuritu ere.

Dena den, egiaztatzen bada diruz lagundutako jarduerak aurrera eraman ahal izateko beharrezko finantzaketa dela, ordainketa aurreratua egin ahal izango dira dirulaguntza emateko ebazpenean ezarritako moduan.

Zazpigarrena. Laguntzen finantzaketa eta aurrekontua.

Baimendutako gastua, berrehun eta hirurogeita lau mila eta bostehun (264.500) eurokoa da, aurrekontuko egozpen hauen kargura:

<i>Aurrekontu saila</i>	<i>Zenbatekoak (€)</i>
1.0210.110.461.01.02.2019	71.100,00
5.0210.110.461.01.02.2020	47.400,00
1.0210.110.470.00.02.2019	24.000,00
5.0210.110.470.00.02.2020	16.000,00
1.0210.110.480.01.01.2019	3.600,00
5.0210.110.480.01.01.2020	2.400,00
1.0210.110.481.00.01.2019	60.000,00
5.0210.110.481.00.01.2020	40.000,00

Zortzigarrena. Jakinarazpena.

Prozeduraren ebazpena banan-banan jakinaraziko zaie interesatuei, Administrazio Publikoen prozedura administratibo komunari buruzko 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legeko 41.1 artikuluan arabera; betiere, emandako dirulaguntzak Kultura Zuzendaritza Nagusiaren webgunean argitaratzea baztertu gabe.

Bederatzigarrena. Araudi aplikagarria.

Bere oinarri arautzaileetan ezarritakoaz gain, laguntza hauek Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzko 2007ko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak eta hori garatzeko onartutako erregelamenduak (2008ko apirilaren 29ko 24/08 Foru Dekretuak) arautuko dituzte.

Hamargarrena. Eskaera eredu.

caso de que se justifique una cantidad inferior a la presupuestada, se mantendrá el porcentaje de la subvención, disminuyendo proporcionalmente la cantidad devengada.

Sexto. Abono de la subvención.

Con carácter general, las subvenciones se abonarán a la finalización de la actividad subvencionada, tras su justificación en los términos previstos en la base específica 7.

No obstante lo anterior, y previa acreditación de la necesidad de financiación para llevar a cabo las actuaciones inherentes a la subvención, podrán realizarse pagos anticipados en la forma en que se determine en la correspondiente resolución de concesión.

Séptimo. Financiación y presupuesto de las ayudas.

El gasto autorizado es de doscientos sesenta y cuatro mil quinientos (264.500) euros con la siguiente imputación presupuestaria:

<i>Partida presupuestaria</i>	<i>Importes (€)</i>
1.0210.110.461.01.02.2019	71.100,00
5.0210.110.461.01.02.2020	47.400,00
1.0210.110.470.00.02.2019	24.000,00
5.0210.110.470.00.02.2020	16.000,00
1.0210.110.480.01.01.2019	3.600,00
5.0210.110.480.01.01.2020	2.400,00
1.0210.110.481.00.01.2019	60.000,00
5.0210.110.481.00.01.2020	40.000,00

Octavo. Notificación.

La resolución del procedimiento se notificará individualmente a las personas o entidades interesadas de conformidad con lo previsto en el 41.1 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas Todo ello, sin perjuicio de la publicación de las subvenciones concedidas en la página web de la Dirección General de Cultura.

Noveno. Normativa aplicable.

Además de por lo dispuesto en sus bases reguladoras, estas ayudas se registrarán por la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa y el Decreto Foral 24/2008, de 29 de abril, por el que se aprueba su Reglamento de desarrollo.

Décimo. Modelo de solicitud.

ESKATZAILEAREN DATUAK / DATOS DE LA PERSONA SOLICITANTE

Eskatzailearen izena Nombre solicitante		H/G	M/E
IFZ/IFK NIF/CIF			
Helbidea Domicilio			
Posta kodea Código postal	Herria Municipio		Lurralde Historikoa/ Probintzia Territorio Histórico/ Provincia
Telefonoak Teléfonos		Faxa Fax	
Posta elek. Email:			

HARREMANETAKO PERTSONAREN DATUAK / DATOS DE LA PERSONA DE CONTACTO

Pertsonaren izena Nombre de la persona			
Helbidea Domicilio	Posta kodea Código postal		
Herria Municipio	Lurralde Historikoa/Probintzia Territorio Histórico/Provincia		
Telefonoa Teléfono		Faxa Fax	
Posta elek. Email:			
IFK/CIF			

PROIEKTUAREN IZENA ETA 4-5 LERROKO LABURPENA/ TITULO DEL PROYECTO. RESUMEN 4-5 LINEAS

Proiektuaren izena Titulo del proyecto	
Laburpena/ Resumen	

ERAGITEKO GAKO EDO ZIURTAGIRI DIGITALAREN IDENTIFIKAZIOKO DATUAK
DATOS IDENTIFICACIÓN CLAVE OPERATIVA O CERTIFICADO DIGITAL

Izena Nombre	IFZ/IFK NIF
Norbere izena/Nombre propio	
GIPUZKOATARIAREN bidezko ordezkartza/Representación GIPUZKOATARIA	
Ustezko ordezkartza/Representación presunta:	

Konkurrentzia adierazpena
Declaración de concurrencia

Aitortzen dut ez ni ezta nik ordezkatzan dudan entitatea ere ez gaudela sartuta 2007ko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzkoak, 12. artikuluan aurreikusten dituen onuradun izaera lortzea eragozten duten egoeratan. Aldi berean, entitatea ez dago 2005eko otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerakoak aurreikusten dituzten onuradun izateko debeku egoeraren batean.

Declaro que no concurren en mí ni en la entidad a la que represento ninguna de las circunstancias que impiden obtener la condición de persona o entidad beneficiaria, previstas en el artículo 12 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa. Asimismo, tampoco se encuentra sometida a ninguno de los supuestos de prohibición para ser beneficiaria de subvenciones previstos en la Ley 4/2005, de 18 de febrero de 2005, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

Bestalde, 15/1999 Lege Organikoak xedaturikoaren arabera, inprimaki honetan nik adierazitako datu pertsonalak Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Zuzendaritzaren aurrean dirulaguntza zuzitzeko erabili ditzan baimentzen dut. Además, de conformidad con la Ley Orgánica 15/1999, de Protección de Datos Personales y por medio de este documento, autorizo, y presto mi consentimiento para el tratamiento de mis datos personales, para que puedan utilizarse ante la Dirección General de Cultura de la Diputación Foral de Gipuzkoa a los efectos de justificar la subvención.

Komunikazioak onartzea
Aceptación de comunicaciones

Onartzen dut eskaerari buruzko komunikazioetarako posta elektronikoa lehenestea. Nire gain hartzen dut eman dizuedan helbide elektronikoaren funtzionamendu egokia ziurtatzeko ardura.

Acepto que las comunicaciones sobre la solicitud se hagan preferentemente por correo electrónico. Me responsabilizo del correcto funcionamiento de la dirección aportada.

Erakunde edo pertsona eskatzaileak baimena ematen dio dirulaguntzaren departamentu kudeatzaileari organo lagatzailearen ondorengo datuen kontsulta egin dezan: / La entidad o persona solicitante da su consentimiento al departamento foral gestor de la subvención para que consulte del órgano cedente los datos de:

Zerga betebeharrak egunean dituela / Cumplimiento de las obligaciones tributarias:		Bai / Si		Ez, agiria eransten da / No, se adjunta certificado
Gizarte Segurantzako betebeharrak egunean dituela / Cumplimiento de las obligaciones con la Seguridad Social		Bai / Sí		Ez, agiria eransten da / No, se adjunta certificado

_____, 201__ko _____ (a)ren _____ (a)

En _____ a _____ de _____ de 201__

Izptua. (Sinadura eta zigilua)
Fdo.: (Firma y sello)